

## HERRITARREN FOROAREN AURKEZPEN BILERA

<b>Bilera antolatu duen organoa:</b>	Hondarribiko udala
<b>Deialdia egin duena:</b>	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
<b>Data, tokia eta ordua:</b>	2008ko uztailak 9 Hondarribiko Udaleko Pleno Aretoa 19:00ak
<b>Harremanetarako pertsona:</b>	Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aitor Gonzalez</li> <li>- Edurne Simón</li> <li>- Naroa Susperregi</li> </ul>
<b>Telefonoa:</b>	943 49 22 15 / 628 53 23 03 / 628 53 22 48
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:info@izadi21.net">info@izadi21.net</a>

<b>Gai-zerrenda:</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1- Etorritakoei ongi etorria</li> <li>2- Hondarribiko Agenda 21en prozesuan emandako pausoen deskribapena</li> <li>3- Herritarren Foroaren izaera, egitekoa eta funtzionamendua zehaztea</li> <li>4- Hurrengo bilerarako datak finkatzea</li> <li>5- Norberak lekarkeena</li> </ol>
----------------------	--

### PARTE HARTU DUTE:

#### **Banakako herritarrak:**

- Asun Yarzabal
- Ibon Izagirre Suso
- Imanol Subijana Sánchez
- Jean-Yves Aguesse
- Jose Mari Ormazabal
- María Jesús Garín
- Txomin Aristondo

#### **Elkarteak, enpresak, eskola zentroak:**

- ACUBI –*Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa*- (Belén Martínez)
- Amute-Kosta Auzo Elkarteak
- Arin Taldea (Maritxu Anzisar)
- *Asociación de propietarios Urbanización Jaizkibel* (Juani Arbelaiz)

- E.I.B.E –Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte- (Enara Marcos)
- Hondarribiko Musika Eskola (Arantxa Arzak)
- Industrias Mintxipress (Enrique García)
- Jaizkibel Konpainia Elkarte (Loli Gartzia)
- Mendelu Auzo Elkarte (Javier Campos, Iñaki Larrarte )
- Olagarro Abesbatza (Loli Gartzia)
- Surbesta Korua (M<sup>a</sup> José Bilbao, Rosa Gómez)
- Talaia Bigarren Hezkuntza Institutua (Miren Apalategi)
- Txingudiko Eratzunketa Estazioa (Eneko Diez)
- Txingudi Saskibaloia (Nieves Alza)

#### **Erakundeak:**

- Bidasoa bizirik (Maribel Lorenzo)
- Hondarribiako udala (Gregorio Berrotaran, Ion Elizalde, Ixabel Olazabal, Juan M<sup>a</sup> Altuna, Maiaia Urrutia, Maite Pelaez, Mikel Mariskal)

#### **1. Etorritakoei ongi etorria:**

Agenda 21en Herritarren Foroaren aurkezpen bilerari hasiera emateko, Ion Elizalde (Hondarribiko udaleko Alkateordea eta Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia) etorritakoei aurkezpen ekitaldira hurbildu izana eskertu zien eta Hondarribiko Tokiko Agenda 21en prozesuan orain artean emandako pauso garrantzitsuenak zeintzuk izan diren azaldu zuen, jarraian etorkizun hurbilari begira erronka nagusia iraunkortasunerako I. Ekintza Plana onartzea izango dela aipatuz.

Ondoren, Agenda 21en prozesuaren aholkularitza zerbitzua daraman Izadi 21 enpresako teknikariei eman zien hitza.

#### **2. Hondarribiko Agenda 21en prozesuan emandako pausoen deskribapena:**

Lehenik, "Agenda 21" eta "Garapen Iraunkorra" kontzeptuei buruzko hurbilpen historiko bat egin zen, aurkezpenera etorritakoek aipatu kontzeptuen inguruko testuingurua uler zezaten. Horrela, hauek dira bileran aipatutako aurrekari historikoak:

- Garapen Iraunkorraren kontzeptua eta definizioa nazioarte mailan finkatzen da (1987, Brundtland txostena): *Garapen iraunkorra egungo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapen eredia da, beti ere etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko duten eskubidea urratu gabe*
- Agenda 21a (21 Programa bezala ere ezagutzen dena) sortzen da (1992, Nazio Batuen Elkarteko Ingurumena eta Garapenari buruzko Goi Biltzarra): garapen iraunkorraren alde lan egiteko mundu mailako Ekintza Plana da.

- 1992 urteaz geroztik, Agenda 21en filosofia eta lan metodologia mundu mailako esparru eta entitate ezberdinen artean zabaltzen hasten da: 1994 urtean Europako Herri eta Hiri Iraunkorren konferentzia sortzen da Danimarkako Aalborg hirian, eta honekin batera, *Aalborg-eko Gutuna* (Europako udalerriek garapen iraunkorraren alde lan egiteko konpromisoa islatzen duten dokumentua). Urte batzuk beranduago, 2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak EAEko iraunkortasunerako Estrategia sinatu eta Garapen Iraunkorraren Euskal-Ingurumen Estrategia onartu zuen 2002-2020 epealdirako.
- Euskal Autonomia Erkidego mailan, urteak pasa ahala, Agenda 21a udalerrri ezberdinetan aplikatzen hasten da, hasierako faseetan, batez ere *Udaltalde 21en* bidez (Udaltalde 21ak eskualde bereko udalerriek osatzen dituzte, taldean lan egiteko onurak aprobetxatuz Tokiko Agenda 21a ezartzeko). Egun, 200 bat udalerrri aurkitzen dira Tokiko Agenda 21en prozesuetan murgilduta.

Agenda 21en aurrekariak deskribatu ostean, Tokiko Agenda 21 prozesuei lotutako lan ildo nagusiak aipatu ziren. Horrela, Tokiko Agenda 21a udalerrri mailatik garapen iraunkorraren alde lan egiteko metodologia eskaintzen duen prozesua dela azaldu zen, non parte-hartzearen sustapenak garrantzia berezia duen (bai herritarren partaidetzak –banaka nahiz elkarte moduan– zein udal administrazioa osatzen duten pertsonen parte-hartzeak).

Ondoren, Hondarribian Txingudiko Udaltalde 21a sortu zenetik orain arte Tokiko Agenda 21en prozesuko pauso garrantzitsuenak deskribatu ziren, jarraian agertzen den taula laburtzen direnak:

<b>2004. urtea</b>
Txingudiko Udaltalde 21 martxan jartzeko hitzarmena sinatzea
Udaltalde 21en aholkularitza teknikoaren zerbitzua kontratatzea
<b>2005. urtea</b>
Garapen iraunkorra eta TA21i zertan datzan azaltzeko lan saioak udaletxean
Hondarribiko iraunkortasun diagnosiaren zirriborroaren idazketa
Hondarribiko iraunkortasun diagnosiaren zirriborroaren berrikuspena
Herritarrei zuzendutako lehen sentsibilizazio kanpainaren antolaketa: <i>Autorik Gabeko Eguna</i>
Tokiko iraunkortasunarekin zerikusia duten alderdi ezberdinen inguruko pertzepzioa ezagutzeko, Hondarribiko biztanleei zuzendutako 250 inkesta egitea
Garapen iraunkorra eta Agenda 21i buruzko komunikazio ekintzak garatzea
<b>2006. urtea</b>
Hondarribiko diagnosiaren zirriborroari ekarpenak egitea eta bertsio osatua idaztea
Bigarren sentsibilizazio kanpainaren antolaketa: <i>Aste Berdea</i> , Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren baitan (ekainak 5)
Hirugarren sentsibilizazio kanpainaren antolaketa: <i>Mugikortasun Iraunkorraren Astea</i> (irailak 16-22)
Diagnosi teknikoaren udaletxeko langileen artean aurkeztea
Diagnosi teknikoaren euskarara itzultzea
Garapen iraunkorra eta Agenda 21i buruzko komunikazio ekintzak garatzea
Diagnosi teknikoaren udaletxean ordezkaritza duten alderdi politikoei bidaltzea
<b>2007. urtea</b>
Hondarribiko diagnosi teknikoaren euskarazko itzulpena amaitzea

Txingudiko UT21en proiektuei lotutako Agenda 21i buruzko Jardunaldia
Txingudiko Udaltalde 21 proiektuari amaiera ematea
Udaletxean ordezkariak zuten alderdi politikoen diagnosiari ekarpenak egitea
Alderdi politikoen diagnosiari egindako ekarpenak aztertzea
Garapen iraunkorra eta Agenda 21i buruzko komunikazio ekintzak garatzea
<b>2008. urtea</b>
Hondarribiko A21en prozesuaren aholkularitza teknikoa kontratatzea
Ordezkaritza politikoen Hondarribiko diagnosiari egindako ekarpenen erantzunak prestatzea
Udalbatzan Hondarribiko iraunkortasun diagnosi eta Aalborg-eko ituna onartzea
Udal ordezkari politikoen zuzendutako Tokiko Agenda 21i buruzko lan saioa egitea
Eskolako Agenda 21 programa udalerriko eskoletan 2008-2009 ikasturtean abiarazteko pausoak ematea
Gaikako lan mahaietan Ekintza Planaren zirriborroa eratzea
Herritarren Foroaren aurkezpena

### **3. Herritarren Foroaren izaera, egitekoa eta funtzionamendua zehaztea:**

Hondarribiko Tokiko Agenda 21en prozesuaren orain arteko pausoak azaldu ondoren, urtea amaitu aurretik hurrengo pausoa iraunkortasunerako I. Ekintza Plana osatzea izango dela aipatu zen eta Herritarren Foroaren egitekoa, epe motzera, dokumentu hori osatzen laguntzea izango da hain zuzen ere.

Ekintza Planaren helburua hurrengo 4-5 urteetan iraunkortasun diagnosiaren bidez Hondarribiko ekonomia, gizartea zein ingurumenari lotuta antzemandako ahultasunei aurre egitea eta potentzialtasunak indartzea izango da. Ekintza Planaren egiturari dagokionez, dokumentua lerro estrategikoz (Planaren helburu nagusiek osatzen dituzte), jarduera programez eta ekintzez osatuta dago (ekintzak, era berean, jardueraz osatuta daude). Diagnosiaren ondorio nagusiak abiapuntutzat hartuz, asistentzia teknikoak Ekintza Planaren zirriborroaren helburu nagusiak proposatu zituen (7 lerro estrategikoak) eta zirriborroa eratzeke, Hondarribiko udalak deituta, udalerrian iraunkortasunaren ikuspuntutik eragina izan dezaketen udaleko nahiz udalaz gaindiko entitateek gaikako lan mahaietan parte hartu zuten.

Behin Ekintza Planaren zirriborroa osatuta, Herritarren Foroari dokumentu hori berrikusi, eztabaidatu eta osatzea egokituko zaio, eta aldi berean, adostutako ekintzak lehenestea (ekintza guztiek lehenetsun maila bat izango dute, horrela, hurrengo 4-5 urteetan lehenetsun maila altuena duten horiek gauzatzen hasiko da udala, lehenetsun txikiagoa dutenak ahaztu gabe). Lan hori egiteko, Foroa gaikako 3 mahaietan banatuko da 2008 urtean zehar:

- 1) Ekonomia eta Gizarte Iraunkortasunaren Mahaia: "Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra sustatzea" eta "Biztanle guztien bizi kalitatea eta gizarte ongizatearen hobekuntza bultzatzea" lerro estrategikoen edukia aztertzea izango da Mahai honen funtzioa.
- 2) Hiri Planeamendua eta Mugikortasun Mahaia: "Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea" eta "Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak

aintzat hartuz asetzea” izango dira Mahai honek aztertuko ditu lerro estrategikoak.

- 3) Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen Mahaia:  
 “Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (Bioaniztasuna eta Paisaiaren babesa)” eta “Hiri ingurumenaren kalitatea handitu eta natur baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea” lerroetako programak zein ekintzak aztertu eta lehenestea egokituko zaio Mahai honi.

Foroaren osaketari dagokionez, Hondarribiko elkarte, banakako herritarrek nahiz entitateek parte har dezakete, eta baita Ekintza Planaren zirriborroan parte hartu zuten pertsonak nahiz udaletxean ordezkariak duten alderdi politikoen ordezkariak ere.

Funtzionamenduari dagokionez, aipatutako gaikako mahaietan edo osoko bileretan lan egin dezake. Horrela, 2008an zehar Foroak honako bilerak egitea aurreikusten da:

BILERAK	2008												2009	
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	01	
Agenda 21en Herritarren Foroa sortzeko aurkezpen bilera														
Foroko gaikako mahaien 1. saioak (helburua: Planaren zirriborroa osatzea)														
Foroko gaikako mahaien 2. saioak (helburua: Planaren ekintzen lehenespena egitea)														
Udalak Foroak adostutako Ekintza Plana berrikustea														
Herritarren Foroko osoko bileran udalak berrikusitako Ekintza Plana aurkeztea														
Ekintza Plana udal plenoan onartzea														

Bukatzeko, Foroak izaera aholku emailea izango duela (udalari tokiko garapen iraunkorarekin harremana duten gaietan proposamenak egitea izango da Foroak izango duen funtzio nagusia) eta erabakiak hartzeko garaian parte hartzaileen arteko adostasuna bilatuko dela azpimarratu zen.

#### 4. Hurrengo bilerarako datak finkatzea:

Bileran egindako aurkezpenean jasotzen zen moduan, Foroaren hurrengo bilera, gaikako mahaien bidez egingo dela azpimarratu zen, jarraian adierazten den moduan:

- ✓ Ekonomia eta Gizarte Iraunkortasunaren Mahaia: irailak 16, asteartea, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan
- ✓ Hiri Planeamendua eta Mugikortasuneko Mahaia: irailak 17, asteazkena, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan
- ✓ Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurumen Bektoreen Mahaia: irailak 18, osteguna, Udaleko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.

Gaikako bileretan parte hartzeko (mahai batean baino gehiagotan parte har daiteke) alde zuretik idazkaritza teknikoari jakinaraztea komeni dela gogorarazi zen, bileretan banatzeko beharrezko materiala prestatzeko garaian bertaratuko den jende kopurua zein den jakiteko.

## 5. Norberak lekarkeena:

Bilerari amaiera emateko, bertaratutako pertsonen Hondarribiko Agenda 21en orain arteko dokumentazioa jasotzen duen CDa banatu zitzaie, besteak beste, iraunkortasun diagnostika eta Ekintza Planaren zirriborroarekin.

Ondoren, zalantzak argitu edo proposamenak jasotzeko tarte bat ireki zen. Honakoak izan ziren egin ziren ekarpenak eta udalak emandako erantzuna:

- Agenda 21en prozesuaren inguruan oraindik Hondarribiko biztanleek programak zertan datzan ez dakitela komentatu zen eta hortaz, komunikazioaren arloan indartu behar dela, baldin eta herritarren inplikazioa lortu nahi bada: Ion Elizalde prozesuan zehar aldi ezberdinetan komunikazio ekintzak egin direla erantzun zuen eta etorkizunean ere komunikazioan sakondu beharko dela, nahiz eta badagoen informaziorik jaso nahi ez duen edo iristen ez zaion jende kopuru bat.
- Foroan teknikariek ere parte hartuko al dute? Ion Elizalde Foroan Hondarribiko iraunkortasunarekin harremana duten elkarteek, teknikariek, banakako herritarrek, ordezkari politikoek eta entitateek parte har dezaketela azpimarratu zuen. Askotan, lantzen den gaiaren arabera, teknikarien parte hartzea beharrezkoa izango da, gaiaren araberrako azalpenak emateko.
- Zergatik hautatu dira 3 gaikako lan mahai? Zein irizpideren arabera aukeratu dira?: idazkaritza teknikoaren diagnostikaren ondorio nagusiak eta Ekintza Planerako aukeratutako lerro estrategikoak abiapuntutzat hartu zirela erantzun zen. Hau da, dokumentu horien gai nagusiak eta era berean, mahaien arteko lana orekatuta egotea. Aktan jaso den moduan, mahai bakoitzari 2 lerro estrategiko aztertzea dagokio eta 3. lerro estrategikoa ("Udaletxeak tokiko garapen iraunkorraren aldeko jarrera eredu garria bultzatzea") hiru mahaietan azter daiteke, zeharkako izaera baitu.

- AENAK –*Aeropuertos Españoles y Navegación Aérea*- parte hartu al du Ekintza Planaren zirriborroa idazteko antolatu ziren gaikako mahaietan? Ion Elizaldekin parte hartzeko deialdia bidali zitzaizela baina parte hartu ez zutela erantzun zuen.
- Zergatik gonbidatu da soilik E.I.B.E. elkarte ingurumen gaietan jarduten duen elkarte moduan? Ez al dago Hondarribian izaera hori duen bestelako elkarterik? Idazkaritza teknikitik komentatu zen gonbidapenak egiteko erabilitako iturriak Hondarribiko udal web gunea, udaleko kultura sailean duten elkarteen datu basea eta azken urteetan udalerriko elkarteekin zerikusia izan dezaketen egunkarietako berriak izan direla. Horren arabera, ingurumenaren alderdiren batekin zuzenean erlazioa duten bi elkarte topatu ziren: bata E.I.B.E. bera eta bestea Bidasoaldeko Kalapie. Dena den, gonbidapen gutunez gain, deialdia egiteko ere komunikabideetara prentsa oharra bidali eta prentsa aurreko bat eman zela aipatu zen. Beraz, datu basean dauden elkarte edo entitateez gain ingurumen arloko Hondarribiko elkarteren batekin parte hartu nahiko balu, ez legoke arazorik.
- Bilerara bertaratutako zen pertsonetako batekin hondakinekin zerikusia duen proiektu batean lanean ari dela aipatu zuen eta ea Foroari proiektu horren nondik norakoak azaltzeko aukera izango lukeen galdetu zuen. Ion Elizaldekin proiektuaren izaera orokorra izanez gero Foroan landu daitekeela erantzun zion, baina izaera espezifikoa edukiz gero, hobe litzatekeela udaletxean bertan aurkeztea.
- Zein fasetan dago Irungo Agenda 21? Nola gauzatzen ari da parte hartzea Irungo Agenda 21en prozesuan? Irungo iraunkortasunerako Ekintza Plana zenbateraino bete da? Ion Elizaldekin egindako galderak Irungo prozesuaren inguruak izanda, Hondarribiko Foroaren aurkezpen bileran gai horri buruz hitz egiteko toki egokia ez dela aipatu zuen. Hondarribiko prozesuari dagokionez, udalak ahalik eta parte-hartzaileena izatea nahi duela komentatu zuen.
- Azkenik, bertaratutako beste pertsona batekin iraunkortasunerako Ekintza Planaren edukiari dagokionez, amaituta dagoen eta ekarpenak egiteko aukera al dagoen galdetu zuen. Ion Elizaldekin Ekintza Plana zirriborroa dela aipatu zuen (maiatza eta ekaina bitartean udal gaikako mahaietan parte hartu zuten pertsonen esker landutako zirriborroa) eta irailetik aurrera Foroko gaikako bileretan zirriborroa aztertu, eztabaidatu eta parte-hartzaileen ekarpenekin dokumentu hori aberasteko aukera egongo dela.

Foroaren aurkezpen bilera 20:30etan amaitu zen.